

Nafarkaria

• ostirala • 1998ko urtarrilaren 9a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Bera • Herriko historia ezagutzeko ikastaroak

Xabier Legarreta • Herrialdeko bertsolaritza indartzen ari dela dio



Txirrindula

esku onean uzteko aukera berria

Txirrindula esku onean uzteko aukera eskaintzen du Iruñean martxan jarri den B Ciclos proiektuak. Gaztelan Fundazioak kudeatua datorren astetik aurrera txirrindulenzako aparkalekua eta mantenimendu garajea zabalduko dira Alde Zaharrean.



Bera.

Herriko historia ikasgai

Bidasoa Ikerketa Zentroak antolatuta, ikastaroa egingen da urtarrilean hasita

Berako historiako alor ugari landuko dira urtarrilaren bigarren hamabostaldian hasiko den ikastaroan. Jende guztiari zuzendua dago ikastaroa, eta Bidasoa Ikerketa Zentroak antolatu eta prestatu du.



Berako historiaren hainbat pasadizo ikasiko dira ikastaroan.
● LUIS AZANZA

BERAKO BIZTANLEAK NOLA BIZI ziren jakiteko hurbilpen bat izango da ikastaroa. Udaltzeko artxiboan gordetzen den dokumentazioan oinarrituz, gai ugari landuko dituzte hogei bat orduko ikastaroan. Landuko diren gaiak hauek dira, bertzeak bertze: demografia eta habitata, nekazaritza, komunalak, olak eta ekonomia, eta gizartean eta politikan izandako aldaketak. Mendez mende joango dira aztertzen hauek guztiak, XVI. ean hasi eta XIX. era arte. Ikastaro saio guztietan sarrera orokor bat egingen da, dauden dokumentalekin alderdi zehatzagoak landuko dira eta galderak egiteko premia sortarazi nahi da. Ikasleen jarrera aktiboa bultzatu nahi da.

Berako Udalean gorde den dokumentaziorik interesgarriena XIX. mendekoa da. Dokumentazio hori ezagutaraztea eta hainbat jazoera historiko interpretatzeko nola erabil daitekeen azaltzea da ikastaroaren xedea. Halaber, historia lanean zein iturri eta zertarako erabiltzen diren erakutsiko da ikastaroan.

Arrakastaz igaro berri da Lesakan talde berak antolatutako Lesakako historiari buruzko ikastaroa. Hogei bat lagun aritu dira ikastaroan urriaren hondarretik aitzinera. Ikastaroan parte har-

tztea debalde izanen da, eta horretarako izena eman beharko da 630243 telefonora deitu eta Izaskunez galdetuz. Izena emateko epea urtarrilaren 14an amaituko da. Ikastaroa euskaraz zein gaztelaniaz egin ahal izanen da. Horretaz landa, bertze bi hitzaldi ere emanen ditu Fernando Mikelarenak: Berako demografiaren eboluzioaz eta 1875eko Berako errodaz. Ikastaroari hasiera emateko, Andoni Esparzak Bortziritetako armarriaz hitz egingen du; hitzaldia nahi duenarentzat izanen da. Urtarrilaren 14an, asteazkena,

izanen da hori. Berako kultur etxean, arratsaldeko 17:30etan. Ikastaroa ondoko hauek emanen dute: Fernando Mikelarena, Historian doktorea; Juainas Paul, Geografia eta Historian lizentziatua; eta Izaskun Abril, Geografia eta Historian lizentziatua.

Bidasoa ikertzen

Hori ez da Bidasoa Ikerketa Zentroak prestatu duen ekintza bakarra. Aurtengo ekitaldirako abian dute Baztan-Bidasoako ondare kulturalaren balorazioaren lehen fasea egitea. Horretarako Cederna-Garalurretik dirulaguntza jaso dute, eta eskualdeko arkeologia industrialaren azterketa eta difusioa aztertuko dute, hots, olak, errotak eta meategiak.

Kantaurialdeko Euskal Herriko baserriaren ekonomia garaikidea aztertzeko bertz urteko proiektua abian jartzeko asmoa dute aurtēn. Egiten dituzten lanak urtekari batean argitaratzeko helburua dute, gai bat sakonago jorratuz eta gainerakoak artikulu solteen bidez argitaratuz urtekariaren barrenean.

Behinpin elkartearekin batera, ahozko historiari buruzko lehiaketa ere antolatu dute. Familia eta baserria aitzakia hartuta, hitzaldi zikloa prestatuko dute.

→ Jon Abril

Betelu

Hiru zinegotziek dimisioa aurkeztu dute

BETELUN EGITEKOA DEN ZAHAR egoitzaren haria ez da oraindik eten. Gobernuko Ongizate Sailak hartutako erabakiak hasiera batean ia beteluar guztiak poztu zituen. Izan ere, autobidea egin zenetik herria alde batera geratu baitzen, eta erresidentziak bizitasuna ekarriko zuela espero baitzuten.

Baina Jon Ander Garcia, Lorenzo Zubillaga eta Ander Arraztio Beteluko Udaletzeko hiru zinegotziek dimisioa aurkeztu dute. Jesus Gonzalez alkatearen jokaerak bultzatu ditu erabaki hori hartzera. Zinegotziek diotenez, «Beteluko alkateari gehiegi gustatzen zaio protagonismoa. Nahiko joera despotikoa agertu du lehendik ere, baina orain, zaharren egoitza dela eta, joera hori areagotu egin da».

Baina bada beste arrazoi bat ere: egoitza eraikitzeak beharrezkoak diren lurak lortzeko zer egin. Alkateak desjabetzearen bidez eskuratu nahi omen ditu, betiere «espekulazioari biderik ez emateko». Baina beren zinegotzi karguari uko egin dioten hirurek ez dute uste irtenbidea hori denik. Guztira, hamahiru lur sail hartuko ditu egoitzaren proiektuak; beraz, hamahiru lagun dira gatazka honetan zer esana dutenak.

→ Urko Aristi

zubian barna

BINGEN AMADOZ



TZaharrei entzundakoa baliogarri egin izan ohi da bizitza aitzinera joan ahala suertatzen zaizkigun gertakizunekin ederki egokiturik. Burura datorkit egunotan, haurtzaroko egun batez herriko petrikiloari aditurikoa. Gizonak ongi asko zekien jendeari nolatan eta zertan lagundu. Zekizkien gauzetan, menperatzen zituenetan, eskua botatzeko prest zegoen beti. Gizakien min fisikoak arintzen ziharduen, baina psikikoetan ere nonbait bere saiakerak egiten zituen, eta, berak, bizitzaren gorabeherez ikasitakoa ondorengoei aholku gisa erakusten zien, besteei gertatutakoaren gainetik eskarmenturik inork beretzat hartzen ez duela ongi jakinda ere. Badaezpada, hala ere ipuintxo bat kontatu zigun behin adiskidantza noraino izan daitekeen eskumotz erakusteko. Petrikiloaren semeak etxera eraman gintuen koadrila handian egun hartan. Aitak galdetu zion ia zertan zebilen horrenbeste jendez inguratutik.

- Lagunak dira, arrapostu zion semeak.

- Lagunak direla diozu, baina horretan ziur al zaude?, aitak.

Petrikiloa kontu kontari hasi zen orduan.

Ez zen zuek bezala, mutiko koxkorra, nire istorioaren protagonista, helduagoa baizik. Parrandetan zebilen sarritan lagun askoren artean. Ez zuen ez, hutsunerik bere aldean topatzen arintasunetan mugitzeko gogo sortzen zitzaionean. Egia da ondasunez ere ongi homititik zego-

la, eta, jakina, itzal ederra izan ohi du zuhaitz abartsu azpian babesa bilatzen duenak.

Adiskidantza nabarmena erakusten ziotenak ez ziren gutxi, eta gure gaztea agitz harro zegoen horretaz.

Zuhurrago ageri zen aita, zalantzatu guztiz semearen adiskide zalapartari haien intentzioekiko eta laguntasun hura aproban jartzeko proposamena egin zuen.

Gure mutikoak beste hainbestetan bezalaxe etxera etortzeko gomitea egin zion lagun andanari. Denak bildu zirenean, sukaldera eraman zituen.

Hantxe Jurrean etzanik, maindre odoleztatu baten azpian zegoen hatsarik gabeko, definigaitza, konkorduna, hankaduna, norbait, zerbait, hilik, eta ez berez hildako inor.

- Errieta bat izan dut gizon batekin, sutan ginen, itsu, mutur joka hasi eta labanak atera ditugu gero. Onik atera naiz ni. Bera hil egin da, hil egin dut nik neuk, egia esan, eta orain ez dakit nola egin nire biktimaren gorpua desgertarazi eta presondegiak libratzeko. Lagundu nazazue adiskide nerek!

Honela mintzatu zen, bai, larridura handiz adiskide aunitz zituen gaztea.

Etixeraturikoak asko ziren, koadrila ederra eta sukalde hartan oso astuna sortu zen isiltasuna.

Batek esan zuen lanera joan behar zuela instantean, besteak andregai zain zeukala. Bazen berehala ezinbes-

teko bidaian atzeratzeko beharra zeukana eta bazen ahaide gaixo bat zaintzeko, orduantxe, gañean harturiko derrigorezko betebeharra ere.

Eta banan-banan aitzakia ederrak asmatu zituzten ia guztiak etxe madarikatu hartatik lehenbailehen ateratzeko.

Laster hustu zen sukalde. Mutikoa, lekuko gisa aita alboan zeukalarik, lur eta zur zegoen, harridura gainditu ezinean. Lagun omen zirenen erantzuna, hobeto esanda, haiengandik harturiko zaplaztakoak min egin zion sakonakonean. Ate aldera emandako pausoak, burumakur, lotsa gorrituriko aurpegiak desagertu zirenean, oraindik ere mugitzeko asmorik ez, bildurti baina tinko bi lagun gelditzen zirela ohartu zen. Lagunmina zen bata, aspaldikoa. Joandakoen artean bazeuden hori bezalakoak, bere ibileretan oso gertu izandakoak. Bigarrena lagun taldean ares-tian sarturikoa zen berriz. Nonbait adiskidetasuna ez da denboraz neurtzen.

Mutikoaren aitak orduan, gorpu misteriozua estaltzen zuen maindre odoleztatu aitzatu eta arkume handi bat topatu zuten lurtean, laguntzeko prest etxean geratutakoek.

Labera eraman zuten etxeok arkumea erretzera, eta beranduago egiazko laguntasunaren ospakizuna egin zuten lauren artean.

Jende gutxi arteko festa izan zen hura, baina poztasun handikoa.

Altsasu

Javier Zabala eta Bitorino Ventura dira Santa Agedako kinto izendatu berriak

JAVIER ZABALA POZUETA ETA BITORINO VENTURA, Santa Agedako kintoen lehen eta bigarren errege izendatu berriak dira. Urtarrilaren 6an, Errege Egunean, zozketa egin zuten udaletzeko batzar aretoan, 1998ko kintoen lehen eta bigarren erregeak nortzuk izanen diren aukeratzeko. 11:45etarako 98ko 44 kintoak iritsiak ziren. Hamabietan puntuan Jose Angel Agirrebengoa, Altsasuko alkateak kartak banatzeari ekin zion, eta handik gutxira barajako bi erregeak partitu zituen. Errege ezpata Javier Zabalarik tokatu zitzaion, eta bastoiena Bitorino Bengoetxeari. Bi mutil hauek aurtengo Santa Agedako prestakizunaz arduratuko dira. Aukeraketa bukatu bezain azkar, lehengo betebeharreri ekin zieten. Aukeraketa egunean kintoen zerrenda osatu eta bakoitzak kutxan jartzen dituen 500 pezetako dirua bildu zuten, hain zuzen ere. Zortzikoa dantzatzeko ikasteko saioekin hasi dira jadanik. Urtarrilaren 7tik otsailaren 3ra arte Burunda pilotalekuan izanen dituzte astero entseguak 21:00etatik 22:00etara. Jotak eta porrusaldak dantzatzeko ikasteko entseguak, berriz, abenduan izan dituzte, Luis Mari Lopez de Goikoetxea irakaslearen arabera oso gaizki dantzatzeko dituzte eta.

→ Amaia Amilibia

Irunberri •

Ikastola, irtenbide eske

Arangoiti ikastolako gurasoek ikastola gisa segitu nahi dute sare publikoan

Irunberriko Udalak Euskararen Legearen aldaketa eskatu zuen azken plenoan, herria eremu mistoan sartu eta eskola publikoan D eredua jarri ahal izateko.



Irunberriko ikastolako haurrak bi tokitan banatuta daude. Argazkian, ikasle gazteko batzuk.

● JONE USOZ

ARANGOITI IKASTOLAK IKASTOLA gisa -hau da, bere irakasleari, kurrikulumari eta idiosinkrasiari eutsiz- sartu nahi du sare publikoan, euskarazko hezkuntza bermatzeko modu zuzena hori dela uste baitu.

Arangoiti ikastolaren egoerak agerian utzi ditu berriro Euskararen Legearen kontraesanak eta gabeziak. Legearen arabera, Irunberri eremu ez-euskaldunean dago eta, ondorioz, bertako eskola publikoak ez du euskarazko D eredua eskaintzen. Hala, seme-alabek euskaraz ikas dezaten nahi duten gurasoek ikastolara bidali behar dituzte derrigorrez, herrian ez dagoelako euskarazko beste zentrorik.

Azken urteotako matrikulazio datuei erreparatu gero, bistan da Irunberriko errealitateak eta gurasoen nahiek aspaldi gainditu zutela Euskararen Legeak ezarritako zonifikazioa. Egun eskolaratzen diren umeen % 50 baino gehiago Arangoiti ikastolan daude, 61 ikasle denetara. San Juan eskola publikoak, berriz, 55 ikasle besterik ez ditu. Eskolaratzeko adinean dauden haurren guraso gehienek ikastolaren aldeko apustua egin arren, ikastolaren

egoera larria da. Egoitza Udalak utzitako moja eskola zahar batean dauka. «Eskola oso zaharra da, aspalditik konpondu gabe dago, eta umeak bi tokitan banatuta ditugu», dio ikastolako Juntako ama batek. Eskola publikoaren egoera oso bestelakoa da. Tokia soberan dauka: liburutegia, nagutegia, jangela, informatika gela... denetarik du; baina gero eta haur gutxiago joaten dira hara.

Egoerari irtenbide bat emateko ezinbestekoa da Euskararen Legeak ezarritako zonifikazioa aldatzea. Ikastolako gurasoak aspalditik ari dira aldaketa hori eskatzen, baina Nafarroako Parlamentuak entzungor egin die eskaerei. Abenduko azken plenoan, Irunberriko Udalak berak ere mozio bat onartu zuen bi eskaera zehatz eginez: Irunberri eremu mistoan sartu eta herrian D eredua jartzeko eskatu zuen.

Arangoiti ikastolako gurasoek ongi iruditzen zaie Udalak bere

esku dagoena egitea Euskararen Legearen aldaketa lortzeko, baina argi dute Irunberri noizbait eremu mistoan sartzea lortuko balu ere ikastola gisa segitu nahi dutela. Hala erabaki zuten azken batzarrean: sare publikoan sartu bai, baina orain arte egindako lanari eutsiz. Izaskun Aldaz ikastolako zuzendariaren ustez, hori izango litzateke Irunberri euskarazko irakaskuntza bermatzeko modurik zuzena: «Mila eta bostehun biztanleko herri batean, epe luzera ez zaigu bideragarria iruditzen ikastola pribatua. Horregatik eskatzen dugu eskola publikoan sartzea, baina gure hezkuntza eredua, irakasleria, kurrikuluma eta idiosinkrasia errespetatuz. Dagoeneko ez zaigu nahikoa iruditzen D eredua jarri eta ikastolako haurrak hara eramatea. Hemezortzi urteko lana errespetatu eta zaindu beharra dagoela uste dugu».

→ Jone Usoz

herri aldizkariak

Edune Elizondo

Ttipi-ttapa Telebista sortu da

Lehen orrialdea eta laugarren eta bosgarren orrialdeetako erreportaia eskaini dizkio **Ttipi-ttapa** aldizkariko azken zenbakiak eskualdean sortu berri den izen bereko teledistasi. «Sortu da Ttipi-ttapa Telebista» izenburupean. «Azaroko hondar egunetan jarri zen ikusgai Ttipi-ttapa Telebistaren proba-seinalea Lesakako Frain mendiko antenatik. Orain, hasierako lan guztiak pentsatu bezala gertatzen baldin badira, bizpahiru hilabetetan lehendabiziko emisioekin hasteko moduan egonen gara. Momentuz Ttipi-ttapa Telebista Bortzi-

riak eta Malerrekan ikustea da helburua, eta geroxeago, bitarteko teknikoak eta ekonomikoak posible egiten dutenean, litekeena da Saraldera eta Leitza-Goizuetara ere zabaltzea. Hemengo teledistasi izanen da Ttipi-ttapa Telebista, bertakoek egina, kalitatez duina eta herriz herriko informazioa eskainiko duena bertakoek probetxurako. Azken finean, teledistasi herrikoia eta euskaltzalea izanen da, zabala eta aniztasunaren aldekoa. Ez du inolako loturarik izanen erakunde politikoekin edota bere independentzia korapila dezaketen protek-

tuekin. Bortziritako alkateek eta Euskara Mankomunitateak oniritzia eman diote teledistasi. Berako Udalak, errate baterako, Herriko Etxean bertan lekua utzi du teledistasiaren estudioa muntatzeko. Lesakako Udalak, bere aldetik, baimena eman dio teledistasiaren antena Frainen jartzeko».

Ttipi-ttapa-ko orriek gogora ekartzen dutenez, bestalde, «Ttipi-ttapa» modu beretsuan, Baztanen ere sortu berri da bertako teledistasi. Xaloe Teledistasi du izena eta azaroaren 18an zabaldu zituen lehen irudiak».

Donesaturdiko oilarra lumatzen
Juan Kruz Lakasta

Laura

Laurak 24 urte ditu, Donibane auzoan bizi da eta Biologia ikasketak burutu zituen joan den irailan. Ez du lanik. Puztakotako kurrikuluma hamaika toki-tara bidali du. Erantzun, haatik, diotenean, harengan inolako itxaropenik piztu ez duen kortsiazko eskutitza jaso du: «Zuk igorri kurrikuluma jaso dugu. Zinez eskertzen dizugu bidali izana, eta jakinarazten dizugu aintzat hartuko dugula gure enpresako pertsonal beharrak asetzeko tenorean».

Karrera amaitu eta gero, kurrikulumak hara eta hona bidaltzeaz landara, Laurak ez zuen zer eginik. Etxepeko Ttakun tabernan igarotzen zituen orduak, egunak, asteak, lagunekin solasean, orain garagardo tragoxka edaten, orain *porruari* zurrupada ematen. Laura, biologia ikasketak baliatuz, jabetu zen haren bizitzak goroldioaren antz gero eta handiagoa zuela. Lauraren gurasoek ez dute biologia ikasi, baina horretaz beraz ohartu ziren, eta txorota ekonomikoa itxi zuten. Goroldioa urik gabe hil egiten da, eta Laurak, dirurik gabe, ezin zuen Ttakunen bizitzeko segitu.

Sosen beharrak bultzaturik, Laura gurasoen etxeko ataria garbitzen hasi zen atzo. Fregonaren ontzian lixiba botatzen ari zela, mutil ederra sartu zen atarian: garaia, beltzarana, begi-urdina, demasa. Propagandaz beteriko erosketa organo zeraman. Lixiba usainaren eta mutil puskararen edertasunaren poderioz, Laurak zorabio arina sentitu zuen. Mutilak propaganda postontzietan sartzeri ekin zion.

Laurak bere buruari esan zion berak fregona pasatzen amaitzen bazuen begi-urdirak propaganda sartzen baino lehen, begi-urdirarekin ligitzea lortuko zuela. Laurak maiz egiten ditu horrelako jolas zentzugabeak bere buruarekin. Atariko zoruko marmol gorria fristi-frasta garbitu zuen, erritmo bizian, eta mutil garaiak baino arinago amaitu zuen lana. Mutilari begira geratu zen. Mutilak, lana burutu zuela, buelta eman zuen, Laurari begietara so egin zion, eta aldegin zuen, fregatutako zorua haren oin handiekin zapalduz. Arrasto zuria utzi zuen. Ez zen zapaten zikinzeria. Marmol gorriari ezin zaio lixiba bota. ●

Biciclos, txirrindulariei eskainitako zerbitzu zabala

Bizikletak uzteko zaindutako Nafarroako lehen aparkalekua zabalduko da Iruñean

Biciclos proiektua txirrindulariei eskainitako zerbitzu zabala da. Gaztelan Fundazioak kudeatua, datorren astetik aitzina hasiko da lehen emaitzak gauzatzen. Bizikletak uzteko zaindutako aparkalekua eta horien mantenimendua egiteko garajea zabalduko ditu, besteak beste.

49 zenbakian, eta, dena uste bezala badoa, datorren asteartean (hilak 13) zabalduko dute. Ikerketa zehatzik egin ez duten arren, herrialdean eta Iruñean bizikleta kopurua bikoiztu egin da azken urteotan, eta ondorioz, bizikletaren erabilpena asko handitu da. Hala ere, hiriburuan bizikletaz ibiltzea eroso baina gehiago arriskutsua da askotan. Iruñeko kaleetan txirrindula garraibide bezala erabiltzea aukeratzeko duenak bi arazo nagusi aurkitzen ditu. Batetik, txirrintulenzako bide jakinik ez izatean, autoak jaun eta jabe dira hirian, eta txirrintulariek ez dute lasai eta seguru ibiltzeko modurik; bestetik, bizikleta leku seguruan uzteko aukera gutxi dago. Gainera, Armendarizen arabera, bigarren arazoa areagotu egin da Iruñeko Alde Zaharrean. «Hemen txirrintularen mugitzen den jende asko dago. Mugimendua nabarmena da San Frantzisko plazan dagoen liburutegiaren inguruan eta Gaztelu Plaza ondoan dagoen Diputazioaren egoitza. Gero eta jende gehiago dabil bizikletan Iruñean barna, baina arazo handiak dituzte toki on eta seguruan uzteko. Gainera, erabiltzaileak ez dira bakarrik gazteak, helduak ere asko direla nabaritu dugu».

Onura aterako dutenak, ugari

Proiektuaren arduradunen ustez egoitza Alde Zaharrean kokatzeak badu arrazoirik. Auzo horretan pedalez funtzionatzeko duen bi gurgpileko garraio erabiltzaileak beste auzo batzuetan baino ugariagoak dira. Hala ere, beste inork baino traba gehiago dituzte bizikleta uzteko garaian, etxeetan ez dutelako toki egokirik eta kalean uztea arriskutsua delako. Maiz etxebizitzak txikiak dira, trastelekurik edo garajerik gabeak, eta bizikleta etxera igotzera ausartzen denak igogailurik gabeko eskailera andana igo behar izaten du. Beraz, erabiltzailearentzako garraibide baina gehiago enbarazu bihurtzen da askotan txirrintula. Beraz, traba horiek guztiak gainditzeko asmoz sortu dute Biccloskoek aparkaleku zaindua. Nolanahi ere, ez dira auzokideak bakarrik onura aterako dutenak. Administrazio zerbitzu asko (Udala, liburutegia,

etxeetan ez dutelako toki egokirik eta kalean uztea arriskutsua delako. Maiz etxebizitzak txikiak dira, trastelekurik edo garajerik gabeak, eta bizikleta etxera igotzera ausartzen denak igogailurik gabeko eskailera andana igo behar izaten du. Beraz, erabiltzailearentzako garraibide baina gehiago enbarazu bihurtzen da askotan txirrintula. Beraz, traba horiek guztiak gainditzeko asmoz sortu dute Biccloskoek aparkaleku zaindua. Nolanahi ere, ez dira auzokideak bakarrik onura aterako dutenak. Administrazio zerbitzu asko (Udala, liburutegia,

Nafarroako Jauregia, Hizkuntz Eskola... eta denda eta merkataritza gunek asko bertan edo bertatik gertu daudenez, hainbat jende hurbiltzen da bizikletaz hara. Beraz, heldu den astetik aurrera badute beren tresna toki seguru, txukun eta gordean uzteko aukera. Armendarizek aurreratu duenez, aparkaleku Iruñerriko erabiltzaileentzat izanen da eta garajea, printzipioz, Alde Zaharreko biztanleentzat soilik. Hasiere batean astelehenerdik larunbatera zabalduko dute. Astez, goizeko 8:00etatik gaueko 22:00ak arte, eta larunbatetan 8:00etatik 14:00ak arte. Oraindik prezioak zehaztu gabe dituzten arren, bizikleta uzteagatik kobratuko dituzten ordainsariak aldakorrak izanen dira. Nolanahi ere, martxa hartu ahal txirrintula maiz uzten dutenentzat txartelak edo bonoak ateratzeko asmoa dute. Era berean, aurrerago auzoko bezeroari nahi duen orduan sartzeko aukera eskaini nahi diote: txartel jakin bat eta giltza batzuk banatuko zaizkio eta nahi duenean erabili ahal izanen du aparkalekua. Garaje zerbitzua, berriz, ez da hara eramaten diren bizikletak moldatzeko izanen. Tailerlean makinaren mantenimendua bakarrik egingen da, ez dutelako lehiari sartzu nahi bizikletak moldatzen aritzen diren dendekin. «Iruñean txirrintula moldatzeko denda asko daude, eta gu ez gaude kompetentzia egiteko. Dirulaguntza jaso dugu eta

ez dugu inor haserretu nahi», azaldu du Samuelek. Hortaz, tailerlean txirrintularen garbiketaz, koipeztatzeaz, ahokaduraz, eta galgak eta kanbioak estutzeaz besterik ez dira arduraturako. Zabalitzen dutenean aipatu bi zerbitzuok bakarrik ematen hasiko badira ere, Bicclos proiektua askoz zabalagoa da. Bicclos Bizikletan idearen barruan kokatu du Gaztelanek. Fundazioak xede jakinak ditu asmo horrekin: bizikleta garraibide bezala hirian errotu bidenabar, txirrintularen inguruan kultura oso bat sortu. Hori kontutan hartuz, txirrintulak birziklatzeaz ere arduratuko dira. Emauseko Traperoeekin elkarrekin baten bidez, txirrintulak ohiko garraibide diren herrialdeetara bidaliko dituzte. Bestalde, bizikletak alokatzeko aukera ere aurrekusi dute. Neguan eskaera handirik izateko itxaropenik ez dute, eguraldi txarragatik, baina uda partean alokatuko dituzte. Horretarako Iruñerriko inguruetara ateraldiak eta guzti antolatzeko aukera ez dute baztertu.

Ohitura falta

Ismael eta Eneko txirrintulazale amorratuak badira ere, jakin badakite Iruñean autoa dela asfaltuan agintari. Gainera, hiriburua berak duen zirkulazio txarrak eta gaizki antolatutako auzoak eta kaleak ez dute laguntzen txirrintula erabiltzaileko. Agintarien begirune eskasa ere gehitu behar zaio horri. UPNko alkatetzak kendu egin zuen 80ko hamarkadan bizikletentzako zegoen karril bakarra. Hori gutxi balitz, berriki Udalak onartutako ordenantzak hainbat debeku jarri ditu txirrintularientzat: ezin dira ibili Iruñeko parkeetan, hainbat kaletan eta espaloietan barna. Zailtasunak zailtasun, bizikletak bere lekua izan dezan aldarrikatzen jarraitzen dutenak gero eta gehiago dira Nafarroako hiriburuan. Duela urte batzuk sortu zen Oraintxe mezulari taldeari (bizikletaz aritzen dira) eta eratu berri den CCCP txirrintulari afizionatuen koordinakundeari gehitu zaie Bicclos proiektua. Nolanahi ere, ekimenaren bultzatzaileak baikor dira, eta denborarekin ohiturak aldatuko direla diote. «Iruñean txirrintularen kultura onduz ez dago, eta, horrelako zerbitzu bat jartzea arriskutsua bada ere, gero eta jende gehiago ateratzen da txirrintularekin kalera. Ez dakigu zenbat erabiltzaile izanen dituen gure gunek honek. Oraingo urte osoa egonen da zabalik, eta emaitzen arabera erabakiko dugu nola jarraitu», azaldu du Armendarizek.

→ Irene Arrizurieta



Samuel Armendariz eta Eneko Astigarraga dira Bicclos proiektuaren arduradunak. LUIS AZANZA



TXIRRINDULA HIRIAN IBILTZEKO garraibide egokia ez ezik gizarteratzeko tresna aproposa ere badela oinarritzat hartuz jarri zen martxan Bicclos proiektua, duela urte eta hiru hilabete. Gaztelan Fundazioak kudeatua, Europako Batasuneko (EB) Creinet proiektuaren zuzendaria dago. Creinet ekimenaren parte dira Nafarroako Gobernu Ongizate Salla, Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta Merkataritza Ganbara. Bicclos proiektuaren arduradunak Samuel Armendariz eta Eneko Astigarraga irundarrak dira. Armendarizek azaldu duenez, Bicclos proiektua gizarterako enpresa solidario gisa eratu da, Iruñean huts asko dituen zerbitzu publiko bat eskaintzeko asmoz. Ekimenak EBtik 14 milioi pezetako dirulaguntza jaso du (560.000 libera inguru), eta, 1996an abiatu bazen ere, orain gauzatuko da. «Bicclos proiektua formazio etaparekin hasi zen duela bi urte. Oinarriko errenta hartzen duten familietatik etorritako gazteei txirrintulak moldatzeko mekanika irakasten aritu gara bederati hilabetez, eta orain proiektuaren bigarren zatia garatuko dugu». Beraz, ikasitakoa martxan jartzeko garaia iritsi da. Armendariz eta Astigarraga arduradunekin batera beste zazpi lagun ariko dira lanean, goiz edo arratsaldeko txandetan. Bicclos proiektuan txirrintula erabiltzaileei eskainitako zerbitzu zabala aurrekusten bada ere, printzipioz bizikletak zainitzeko aparkaleku eta mantenimendua egiteko garajea bakarrik eskainiko dira. Egoitza Iruñeko Alde Zaharreko San Anton kalean dute,

Josune Ruiz
Osasun langilea

«Bizikletari oztopoak eta debekuak besterik ez dizkiote jartzen»

JOSUNE RUIZ, 41 urteko osasun langilea, Iruñeko Gaztelu plazan harrapatu genuen herenegun goizean. Bizikletaren erabileraz galdetu nahi geniola esan genionean, irribarretsu erantzun zigun pertsona aproposa aukeratu genuela, bizikletazale amorratu da eta. Bi gurgpilean gainean eserita, kexu agertu zen Iruñean bizikletak automobilak baino askoz ere tratu kasikarra ematen jartzen duela. Erabat kontra nago. Zer dela eta debekatu behar ditade Takonean lasai-lasai paseatzea? Normala iruditzen zait mukizu bat espaloietan gainean bizian ibiltzen bada zerbait esatea, baina gehienak kontu handiz eta lasai ibiltzen gara, enbarazurik egin gabe. Ni Alde Zaharrean ere bizikletaz ibiltzen naiz, eta ez dut uste traba egiten dudarik. Horregatik, ez dut ulertzen zertarako jartzen dituzten debekuak. Zentzugabeberria da.

■ Egunero erabiltzen duzu bizikleta?
Bai. Duela hamahiru urte, Alde Zaharrean bizitzera etorri nintzenean, kotxea saldu nuen eta geroztik bizikletaz joaten naiz lanera. Nafarroako Ospitalera. Niretzat ez dago bizikleta baina hobierik alde batetik bestera mugitzeko. Gainera, nire laguna da. Astia dudak bakoitzean bizikleta hartu eta paseatzea joaten naiz. Zoragarria da.

■ Zer moduz dago Iruñean txirrintularientzat?
Oso gaizki. Pio XII etorbidean bizikletentzako karrila zegoenean, erabiltzen nuen, baina oso gaizki egina zegoen. Inork ez zuen errespetatzen, eta probetxu politikoa atera ondoren segituan kendu zuten. Iruñean ez du batere bultzatzen bizikleta. Lagundu beharrean, oztopoak eta debekuak jartzen dizkigute.

■ Udal ordenantza berrietan debekatu egin dute parkeetan eta zenbait ka-



Josune Ruiz
«Iruñean ez du batere bultzatzen bizikleta»

→ Irene Arrizurieta

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Arabar baten gainean: Andoni Urrestarazu

Azparrenan zukeen ezizen horien guztien mitologia izkutua eiki, eta Azparrenan ere bazuen Landazabal-Garagaltza ama-sendiaren sorleku agerikoa Araian.



Beste ezeren gainetik, Andoni Karmelo arabako genuen, arabarra batik bat, bere idazkiak sinatzeko erabili goitzen guztiek argikiro salatzen digutenez: Eginu, Urtubi, Utarra, Urabain, eta bereziki, ezagunen zaigun Umandi huraxe. Arazpeko peñaren izena. Azparrenan zukeen ezizen horien guztien mitologia izkutua eiki, eta Azparrenan ere bazuen Landazabal-Garagaltza ama-sendiaren sorleku agerikoa Araian. Urrestarazu-Urtubi aitaren aldetiko sustraiak Gasteiztarak zituen ordea. 1902.eko uztailaren 16an sorturik, gazteren gazte lekutu zen etxetik ikasle, Arrasaten eta Gasteizen, soldaduskarenak bahiturik Afrikara eramane zuten arte. Bi izan ziren beraz, Araiarrak beharrez ezagutu zituen gerrateak. Besteak, etxekoak, lantokia Madrildik Donostiara aldatu berria zuela harrapatu zuten, eta Araba gudalostean, Laredokoa arte iritsi eta iraun zuten, gartzelaratzeko sari. Guda osteko bizitokia Gasteizen izan zuten, arrebarenean, baita Frankoren aurka izkutu eramaniko lanen ihardun-tokia. Hantxe, espetxearena arra-oroiu zioten domaiaz, behin baino gehiagotan, ezazoi. 1951.eko grebaren ostean, Gasteiztik ehun kilometrotara erbesteratzeko agindu zioten, eta Iruñera jo ondorean, Paris eta Baiona izan zituen helduleku. 1979.era arte ez zen Gasteiza berriz ere itzuliko, ohi gisaz, arrebarenera. Haatik, luze joan zitzaion oraino, 1993.eko azaroaren 21ean zendu baitzen arabar hiriburuko kuttunen.

Euskara Gasteizen edoski zuten lehen aldikoz, Arana-Goiriren ikaspideaz baliaturik. Orduz geroztik, ez zuten lagako, eta batzutan bere kasa, besteetan lagundurik -



Madrilen zegoela Juan Ruiz de Escalera Maidagan, eta Donostian, Toribio Altzaga eta Maria Dolores Agirre izan ziren, besteak beste, bere irakasleak, ikasle izatetik irakasle izatera igaro zen konturatu. Gasteizen ikasle izan zituenean artean izen sonatuak ez ziren falta: Jose Angel Cuerda, Salvador Espriu, edota Sánchez Carrión.

Karrikara atera zuten lehenbiziko liburua *Gramática vasca* ezaguna izan zen, Zarauzko Itxaropenean, 1955.ean. Fite agorturik, beste bi argitalpen jaso zituen, Auñamendin 1959.ean, eta Kardaberaz Bazkunean 1976.ean. Eskolak prestatzeko ontzen zituen zirriborroekin osatutakoa Jon Etxaide lagunari helarazi zion, eta hark argitara behar zuela iritzirik, Julio Urkixo mintegikoengana jo zuten. Koldo Mitxelenak berak aztertuta atera zen. Gramatika honen osagarri, ber toki eta urtean, *Bizkaierazko aditz erak* azaldu zen. Denborak joan denborak etorri, zaharkiturik gertatu zelakoan, kasetetan grabaturiko gehigarri modukoak argitara eman zituen 1977.ean, *Euzkal-eliztiaren betebidea*. 1986.ean gramatikaren laburpena atera zuten, *Euzkal elizti laburra*, euskararen ezagupen txiki bat eduki nahi dutenentzat, eta 1989.ean lehenagoko gramatikaren euskarazko aldaera, *Euska eliztia*.


Gerra aurretik Euskaltzaindiak eginiko lana goraiatu zuten arren, ez zitzaizkion lakat bereziki ondorenean euskara batua sortzeko egin ziren ahaleginak. Berauk erabili euskarak, Azkueren Gipuzkera osotuan zuten oinarria. Horregatik, euskaltzain urgazlea bazen ere, 1993.ean Euskaltzaindiak ohorezko izendatzeko proposatu zionean,

honek ezetz, ez zuela nahi, eta errefusatu zion aunitzek goaitatu goza-mizka gutziatsuari. Ez zuten berdín jokatu, berriz, 1922.ean Euskarazaintzakoek euskarazain oso izendatu zutenean. Tarteen, naski, batuaren inguruko zorioko ika-mika mingarria: «Eta gaurko ontan euskara batua deitzen dana eskeintzen digute, bide berri ta egokia bezela aurkeztu nahi dutena, batasunerako onena izango bailitzan. Geron ustez arazo oni buruz geyegi edo da itzegin eta idatzi dana, ta batasunaren alde egonarren ez deritzai-gu ezinbestekoa dala ta askoz gutxiago arrapaladan eta edonolaz egitea». Honen inguruko kezkez mintzo, *Euzkal betekizunak* eta *Euzkeraren ebazkizun aundia* agertarazi zizkigun, 1977.ean eta 1991.ean hurrenez hurren.

Hil hurren zegoela, euskara ezin falta bere azken nahian: «Ene bizian barna burutu alizan ditudan nere lan txikiak, Euzkadi nere aberriarentzat nolabait onuragarriak izan ditezken, ene yoran bizienak agerrarazi nai ditut; eta yainkoari Aren eskubidezkoak diran azkatasuna ta buru jabetzea eman dezaizkiola, arren eta arren, eskatzen diot, aren bizia bere egiazko euzkal-gogoaz antolatu al dezaken, bere izkuntza dan euskeraren edatze osoaz, euzkal-bizia egitan izan dedin ezinbesteko bidea dalarik».

etorri ahalean

Patziku Perurena



Egiptoko eltzearen usaia

Karlos III Nobleak 1423an Iruñeko hirigune osoari «Privilegio de la Unión» eman zion arte, Navarrerria, San Zernin burgoa, San Nikolas, eta San Miguel auzoak besterik ez zituen Iruñak, beren lurpeko urtegi, dorre, harresi eta sar aterako ate haundi banarekin.

Baina, 1515ean Nafar erresumak Gaztelarekin bat egin zuten arte, apenas burutu zen Karlos Nobleak disenatutako elkartasun harenik Iruñan. Izan ere, oinordekotza zela eta, erregeen eta beren ahaidekoen artean sekulako deskalabroa baitzegoen. Herririk gehienak, etengabeko gerratean, kasik eskeleto huts bihurtuak; dorre eta gaztelu erorixeak; etxe hutsak, gizonik gehienak gerran; elizak itxiak edo gerrako babes bihurtuak; landak, alorrrak, baratzak landu gabe; ez eskola, ez gramatika, ez ofiziotako maisu eta ez Jesus: apez, fraile, monje, erromes, eskale, bandolero eta beltzeri guzira, gogoak emanala zerrikeri, lapurreta, hilketari eta belzkeri egiten...

Halare, XV mendeditik honuntz, Iruñean (eta beste hirigune askotan): Zangotza, Estella, Tutera, Gasteiz, jendea bere ofizio guneetan pilatzen joan zen, eta urteak joan ahalean: *calle de las Caldererías, de los Calceteros, Cuchillerías, Buñuelerías, Mercaderes, Salinerías, Tornerías, Bolserías, Tecenderías, de la Tejería, de las Carpinterías, de las Carnicerías, de la Zapatería, y de las Pellegerías...* Horrek ez du esan nahi ordea, kale bakoitzean ofizio horretako jende hutsa bizi zenik, baina bai gehiengo nabarmena.

Horietako bat, «Pellejería» kalea genuke, esaterako, eta hura nolatsu osatua. Laborari gutxi eta merkataria asko; batez ere: *pelaideak, harginak, arotzak, zurginak, basteroak, kordeleroak...* eta ofiziburuak aprendiz eta morroiak berekin. Konparaziora 1770ean Jose Mugirokoak: andrea, bost

morroi aprendiz, eta neskamea; 1774ean Mielanton Olasagarrek emaztea, semea, bi alaba beltz, sei ikasle morroi eta bi neskame. Jose Gaintzakoak bi estudiante, bi dontzeila, bi neskame, eta pagea. Ferrando Agoizkoak: «*mujer, 4 hijas, 1 criado, 1 lacayo, un page, 1 doncella, 1 gorrón y 2 criadas*». Ordurako ere izaki gorroiak!

Auzoan bazuten putzadera lurpeko bat, ur ateratzeko txirrika, urontzi, kate eta guzi; baita kale ertzetan hiru farola ere, auzotarrek beren kargu olioz hornitzen zituztenak. Santa Ana basilikan egiten zituzten bilera guziak, auzoko buruzagiaren agindura; biografiarik gabeko santa huraxe baitzuten zaindari, eta larunbatero, «pelaire» batek edo kapelauak, biztuko zion kandela.

Auzotar guziek Pazko bigarrenengan otordu sekulakoa egiten zuten, baina, halako gastuak sortzen, non 1665ean hamar urterako kentzea erabiki zuten. Jendeak ez etsitzen, orde, festa harenik gabe, eta «*olla de Egipto*» gustagarri haien orde, gutxienez gazta, ogi eta ardoa ematea erabaki zuten, urte haietan ere.

Santa Ana eguneko festa, uztaren 16an, oso apala izan ohi zen. Atean elorri adaxka batzuk paratu, su haundia piztu bezperan eta bihamonean, eta «*sonar los acordes del juglar o tamborin para que saltase la gente, por la noche alrededor de la hogera, y de día en torno de alguno de los pozos*», eta 1685ean meza ematen hasi ziren Santa Anaren etxeko salan.

Pellejeriako usai horrek, harimutur batzuk lotu dizkit gogoan: «Pellejero»ak barne, horko deitura euskaldun beltz asko; gure oroitzeko larruketariak; Santa Anarekiko jaiara, atetako elorri adaxkak, su eta ur inguruko dantzak; gure dambolinak, eta batez ere «Egiptoko Eltze» hori, egia erabiltzeko bildurrez edo, gexur xuriz estalirik daukaguna.

Ziria

• Motxorrosolo •

Baremoak

ONGI ETORRIAK... MILA ESKER. EUSKARARENA BETE DU POLITIKARIAK. Zenbaitzuk kuota-ordaintzearena bestelako moldean uler-tzen ohi dute. Irratien alorrean ere, gauza bera, lizentzien banaketarako baremoak denetarako aukera uzten baitu. Egunean bost minutuz ariko denak programazio osoa euskaraz egiten duenaren baremo ia bera izanen baitu. Usu azalpenek ez dute mamirik, ari-marik ere ez. Euskararen Kontseiluak ezer egiten duelakoan.

Xabier Legarreta musikaria

«Bertsolaritza indartzen ari da Nafarroan»

• LUIS AZANZA

Xabier Legarreta aranoarrak eskuratu berri du IV. Xalto saria. Nafarroako eta Iparraldeko 24 urtetik beherako bertsolariek soilik har dezakete parte sari horretan. Legarretaren ustez, horrelako ekitaldiak, bertsolaritza indartzen laguntzeaz gain, aproposak dira gazteak trebatzeko.

ERREGE BEZPERAKO PARRANDAK loa galarazi eta logalea inarrosi ezinik bazebilen ere, hiztun aritu zen Legarreta biharamun eguerdi eguzkitsuan egindako hitzorduan. Bertsotan ofizioka jartzen dutenean bezala, suelta eta bat-batekoa izan zen haren saioa.

■ **IV. Xalto bertsolari sariaren garalle izan zinen Goizuetan duela gutxi jokaturako finalean. Espero zenuen?**

Esperantza ez da sekulan gal-tzen eta beti izaten da zerbaiten asmoa. Akats bat edozeinek egin dezake, eta bi ere bai; behin ere ez da jakiten. Gustura aritu nintzen eta neure burua ongi ikusi nuen. Giro ona zegoen afalondan, eza-gunak ginen gehienak, eta bertan bildu zirenak asko animatu ninduten.

■ **Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalean aritu zara, eta Txapelketa Nagusian ere, lehen aldiz. Nola ikusi duzu zeure burua?**

Oso gustura. Nafarroako Bertsolari Txapelketan oso gustura ibili nintzen. Finalera iristea gustukoa da guztiontzat eta iritsi nintzen. Han nahiko lan ona egin nuela uste dut, laugarren sailkatu bainintzen.

■ **Bertsotan entzun zaituztenek doinuari garrantzi handia ematen diozula diote, eta doinu zaharrak dituzula gustuko. Zergatik?**

Berez ateratzen zaizu bertsota-

ko garaian. Gustukoa duzuna etortzen zaizu, eta nik doinu zaharrak izanen ditut nonbait gustuko. Doinu berriak baino gehiago zaharrak erabiltzen ditut eta, ahal baldin bada, beti.

■ **Beste bertsolari gazte batzuek egin moduan, zuk ere bertsolaritza tradizionala eta gaur egungoa uz-**

tartu dituzula aipatu izan da.

Beti gustatu izan zaizkit bertso zaharrak, eta haien haritik segitzen dut. Gaur egun bertsolari on asko dago, eta lehen ere baziren. Gaur egun, gainera, gazte asko datoz, eta ikusi da Euskal Herriko Txapelketako finalean zortzitik, Lizaso eta Egaña kenduta, beste guztiak gazteak direla. Gazteak nola datozen asko gustatu zait.

■ **Ikusten duzu zeure burua handien artean?**

Oraindik asko falta da. Nire aldean lan asko egin dutenak franko dira. Ez da urte asko bertsotan hasi nintzela. Handien artean oraindik ez dut neure burua ikusten, baina noizbait gerta daiteke, zergatik ez? Igual beraiek ere ez zuten pentsatuko horrelakorik.

■ **Nola ikusten duzu bertsolaritza Nafarroan?**

Bertsolaritza indartzen ari da Nafarroan. Orain dela urte batzuetako Nafarroa-Iparraldeko txapelketei begiratuta, batez beste adina nahiko heldua zen. Orain gauzak aldatzen ari dira. Joan

den urteko Nafarroako Txapelketako finalean eta txapelketan gazte asko zegoen. Xalto sariketan ere ikusi da gazte dezente dagoela bertsotan aritzen dena, eta hori seinale ona da. Gero eta afizio handiagoa egotea osasungarria da.

■ **Eskarmentua zutenek alde egin dute. Horrek ez du herrialdeko bertsolaritzaren maila apaldu?**

Ez dakit maila jaitsi den. Nik uste joan direnak gazteei leku bat utzi nahi zietela eta aspertu direlako edota nahikoa egin dutelako erabaki dutela uztea, besterik gabe.

■ **Iparraldekoen falta ere nabaria da. Nafarroako azken txapelketan batek baino ez zuen parte hartu. Bertsotan aritzeko modu bat joan da haiekin batera?**

Bai. Hain daukate hizkera, bertsoakera eta izaera berezia. Dena dela, badatoz berriak Iparraldek: Amets Arzallus bera hirugarren izan da Xalto sarian. Oso ondo-dabiltzanak badatoz. Gerora ez badute uzten behintzat, badago erreleborik.

■ **Horretan laguntzen dute Xaltok eta gisa honetako sariak?**

Beti dira onak horrelako sariak. Sariak horiek aukera ematen dizute zer dakizun erakusteko. Bestela, gazteentzat ez dago

Xabier Legarreta 21 urteko aranoarrak, Estitxu Fernandez eta Amets Arzellusi aurrea hartuta, irabazi zuen joan den abenduaren 26an Xalto bertsolari saria. Joxe Oizartabal andoaindarrak irakasle zuela, hamabost urterekin hasi zen bertsotan Goizuetako bertso eskolan. Hango taldea desegiten ari zela ikusirik, Hemanira joan zen.

Egun, Hermanin jarraitzen du. Aranoarra gutxienez astean behin joaten da Iraulio Pantaleone bertso eskolara bertsotan aritzera. Ikasteko asko duela badakien arren, ez du hobereenen artean egoteko aukera baztertzen.

Duela urte batzuk utzi zituen ikasketak eta aitaren enpresan aritzen da lanean, igeltsero. Lana eta bertsolaritza dela medio, egonaldiako beta gutxi badu ere, pilotan aritzen da, ezku zain palaz. Parrandak ere ez ditu ahazten. Nafarra den arren, ahuntzak mendira jotzen duen moduan, lanerako ez ezik, lagunekin ateratzeko ere Gipuzkoara doa beti.

aukerarik herriz herri plazetan aritzeko. Aukerak bilatzen hasiz gero, sariketa bat izan beharko litzateke, edo txapelketa bat. Sariaketa horietan aukera handiagoa dago nabarmentzeko eta komenigarriak dira.

■ **Zer du bertsotan bertute Legarretak?**

Ez dakit. Gustukoena ofizioko lana dut. Bakarkakoa eta puntuak erantzutea gustukoa dut ondo ateraz gero, baina errezen aritzen naizena ofiziotako lanean da.

■ **Eta hobetzeko?**

Dena. Beti izaten da hobetzeko

zer edo zer, eta nik dena dudala uste dut.

■ **Eta etorkizunerako zer asmo?**

Joan den urtea pisua izan da. Txapelketa asko egin dira. Lehenengo Nafarroako Txapelketa etorri zen eta gero berehala Euskal Herriko izan genuen. Atzetik Xalto saria, eta hori bukatuta berriz Nafarroakoa dator. Aurten ez dakit zer aterako den, ahal duguna egiten saiatuko naiz. Orain arte gustura nabil eta txapelketetan parte hartzen jarraituko dut.

→ Irene Arrizurieta

BEKARIO!

ZALDI ERDA



Nafar Kronika

Fermin Erbiti

Opari eta ilusioak

GEZURRA BADIRUDI ERE, AZKEN HAMABOSTALDIKO ospakizunen arrazoi-aitzakia orain dela hogeitenei Belengo estalpe xume batean sorturiko haur pobre bat omen da, baina honez gero gurea bezelako herri aberatsenetako guraso gehienek bertze bertsio politagoa asmatu diete bideo eta ordenadoretik mugitzen ez diren haur ederrei. Bertsio berriaren arabera, ez da inon haur pobrerik jaiotzen. Olentzero, Papa Noel eta Errege Magoei opari pila bat eramaten baitiete munduko haur guztiei.

Gaurko gizartera egokituriko bertsio hau akasgabea litzateke, baldin eta jostailu denda ederrean ilusioa ere salgai balego. «Badut hamar urteko seme ergel bezain tristea, ekarri berrogei eta hamar mila pezetako ilusioa», erranen lukete gurasoek. Ilusioa, ordea, salgai ez dagoen gauza bakarrenetakoa denez, hamar urteko haurrak aurretan ere ordenadore aurreratuenarekin konformatu behar izan du.

Gabonetan guraso askori bezalatsu gertatzen zaie politikoei, urte guztian ilusioa sortaraztea oso zaila dela frogatzen ari baitira etengabe. Biztanle gehienak agintarienganako konfidantza erabat galdurik ikusi eta administrari lanak egitea aski dela pentsatzen heldu dira, eta, agian horregatik, xede nagusizat aurrekontuak dituzte. Behin urtebetez irautea ziurtaturik dagoela ikusita ez eskatu bertzerik.

Iraganean baino etorkizunean kezkatuago dauden politikoei behar ditugu, administrari-lanak ez ezik, politiko lanak ere egiteko konpromezua bereganatzen dakitenak. Izan ere, haurren ilusioa hipermerkatuetan salgai ez dagoen bezalaxe, gizartearen konfidantza ere ez da aurrekontuak onartzearekin erdiesten. Hori guztia kontuan hartu nahi duen politiko klasea eskatuko nieke nik Olentzero, Papa Noel, Errege Magoei, urte berriari... edo guztiei, guztien artean ere nekez lortuko baitute gizartearentzat hain preziatua litzatekeen oparia.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Etxalar: Los Rossis** taldeak kontzertua eskainiko du bihar, 22:00etan, Herriko Ostatuan.
- **Iruñea: Amaia Zubiriak** kontzertua emanen du Erraldioen Txokoan datorren ostegunean, hilak 15, 20:00etan.

ERAKUSKETAK

- **Iruñea:** Gaztediaren Etxean 1997ko Gazte Lehiaketako komikien erakusketa dago zabalik urtarrilaren 15era arte. Astelehenetik ostirale- ra, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 22:00etara.
- **Iruñea: Iñigo Manterolaren** margoak ikusteko aukera dago Alkerdi aretoan urtarrilaren 15era arte. Igandetan itxita badago ere, astelehenetik larunbatera 18:00etatik 21:00ak arte zabalik dago.
- **Iruñea:** Deskalzos 72 aretoan *Emakumeak eta enplegua*, 1976-96 erakusketa dago zabalik hilaren 20ra arte. Erakusketa zabalik dago astelehenetik larunbatera, goizez 11:00etatik 13:30ak arte, eta arratsaldez 17:00etatik 20:30ak arte.
- **Iruñea:** *Recuerdos de Etiopia* izenburupean Manolo Muñoz mendizalearen argazkiak biltzen dituen erakusketa zabaldu da Nafarroako Kirol Elkartearen. Erakusketa Etiopiako paisaiak eta jendea ageri dira.

ZINEMA

- **Iruñea:** Karrikiri elkarteak euskaraz zinemaldia antolatu du urtarrila, otsaila, martxo eta apirilera. Zikloa Golem zinematikietan egiten da, eta heldu den ostiralean, hilak 16, abiatuko da.

Lehenengo filma *Alargunen gailurra* izanen da 20:00etan. Sarrera 450 pezetakoa izanen da.

BESTELAKOAK

- **Erasun:** Bertso afaria egingen da bihar. Bertsotan ariko dira A.M. Peñagarikano eta S. Lizaso.
- **Iruñea:** Iruñeko Alde Zaharra auzo elkarteak hamaika ikastaro antolatu ditu: dantzak, eskulanak, yoga, masajea, argazkigintza, joste, txalaparta, pintura eta

marraskia, ehozeria-lana, areto dantzak eta *aerobic*-a. Ikastaroak urtarrilaren 12an hasiko dira eta matrikula egiteko epea gaur bukatuko da. Izena eman nahi izanez gero elkarteko egoitzara joan behar da: Aldapa kaleko 5 zenbakia 11:30etatik 13:30etara eta 18:00etatik 21:00etara. Bestela 21-25-26 telefonora deitu.

- **Iruñea:** Datorren asteazkenean, hilak 14, *Asociacion euskara*-ren 100. urtemugaz mintzatuko dira Patxi Larrion historialaria eta

Xabier Erize filologoa. Hitzaldia Zaldiko Maldiko elkarte- an izanen da 20:00etan.

- **Iruñea:** Cristobal Burgos argazkilaria arabarrak *Érase una vez el bosque* eta *Pirineo fantástico* diapositiba emanaldia eskainiko du, datorren ostegunean, hilak 15, Erraldioen Txokoan 20:00etan.
- **Iruñea:** Ostiela! aldizkariaren zortzigarren zenbakia aurkeztuko dute gaur, 19:00etan, Catachu tabernan. Etortzekoak: Joan Arano, Iñaki Segurola eta Valentín Traman.

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini



Aezkoan haize hegoak fal-fal-fal egiten du; ipar haizeak, berriz, fil-fil-fil.

Eta nola dagi **BAGURRIN** berriak?

Shhhhhhhhhhhhhhhhhhh